

Altza

Pertzagileen erreinuan

Larraitz Garmendia [943 391267]

datorren larunbatean, hilak 3, arratsaldeko 18.00-etatik aurrera, kaldereroen konpartsa auzoko kaleetan barrena ibiliko da. Urtero bezala, altzatarrek ijitoz jantzita zartaginaz eta mailuaz lagunduta, kaldereroen pantomima auzoratuko digute. Aipatu beharra dago Herreran gero eta festa gutxiago egiten dela. Hala eta guztiz, kaldereroen jaiaren parte hartze handia duen bakkarrenetakoa da. 60-70 lagun inguru atera ohi dira konpar-



Beste auzoetan bezala, Altza-Herreran ere ibiliko dira pertzagileak

Konpartsa larunbatean irtengo da, arratsaldeko seieta

tsan, tartean haur ugari. Ez dira falta izaten, gainera, astoa, karroza eta ahuntzak, esatera-


ko. Kaldereroak San Luis plazatik aterako dira eta Herrerako kaleetan ibili ondoren,

Gaiztarro eta Larraxora abiatuko dira. Konpartsan parte hartu nahi izanez gero, zator larunbatean, arratsaldeko 18.00etan Auzotegira.

Igeldo

Hegoaldeko zuhaitz igela ezagutzeko aukera

Haritzalde Naturzaileen Elkarteko kideek zuhaitz igelari buruzko diapositiba emanaldia eskainiko dute Itxas Aurre etxean hilaren 3an, larunbata, 17.30etan. Igeldo eta Ibaeta inguruan bizi den igeltxo ezagun hau Euskal Herrian iraungitzeko arriskuan dagoen anfibio bakarra da. Haritzaldeko ei esker, gure igela hau hobeto ezagutu ahal izango dugu.



Frontoia berriro ere hizketagai

Manuel Etxaide S.L. enpresaren esku geratu da frontoia eta aldagelen eraikuntza. Hala eta guztiz ere, udal ordezkarien esanetan, hilabete joango da lanak hasterako. Enpresak hiru hilabete-hiru hilabete terdiko epea izango du lan guztiak bukatzeko. Beraz, lanak festak hasi baino hamabost egun lehenago bukatuta egon beharko lukete. Horrelakoetan aurreikuspenak gutxitan betetzen direnez, edozein atzerapenak eragin handia izango luke 2001eko San Pedro jaietan.

Hasi da mus txapelketa

24 bikotek eman zuten izena urtarrilaren 26an hasitako mus txapelketan. Datozen hiru hilabeteetan ostiralero mus txapelketa jokatu da Itsas Aurren, gaueko 22.15etatik aurrera. Bikote bakoitzak 1.400 pezeta ordaindu behar ditu jokatu ahal izateko eta lehendabiziko lau bikoteek saria jasoko dute: lehenak bi arkume, bigarrenak arkume bat eta edariak, hirugarrenak lau txuleta eta bi botila ardo eta laugarrenak bi oilasko eta bi botila ardo.

Hinkildegia MERTZERIA

- KORTSETERIA: DIM, CHANTELLE, SIMONE PERELE, SELMARK, LITTLE KISS
- PIJAMAK: MASANA, AMETLIER, NOCTURNO
- LENTZERIA: BALMORAL, VANIA
- GALTZERDIAK: DIM, SILCA, PLATINO
- BARRUKO ERROPA: AVET, PUNTO BLANCO, DIM, SET (GIZON ETA EMAKUMEENTZAT)

Tel.: 943 472328 • AMEZKETA PLAZA (AMARA BERRI)

ELUTXETA
Sagardotegia

OZTARAN BAILARA • Tel.: (943) 55 69 81 • 20130 URNIETA